

OPOSIZIOAREKIN HIZKETAN


Iñaki Arratibel (EA-EAJ)

“Oraindik gobernu programa jasotzeko gaude”

EHren kudeaketa gogor kritikatu du. EA-EAJ-ko udal taldeak gutxi barru aterako du urtebete honetako balantzea.

■ “Udal gobernuan parte hartze-ko aukera eman zitzaigun, bai; baldintza, ordea, udalaren gestioan ez sartzea izan zen, eta ezetza eman genuen.”

■ “Herria nola antolatu erabakiko duen eztabaida (arau subsidiarioei buruzkoa) martxan jarriaraztea da gure oraingo herronka.”



Iñaki Arratibel, udaletxeko balkoian eserita.

■ **Legegintzaldiak lehenengo urtea bete du. Zer balorazio egiten duzue oposiziotik?** Hauteskundeak eta gero udal gobernuan sartzeko aukera izan genuen, baina, EHren jarrerak ate guztiak itxi zizkigun. Proposamena hau zen: Lizarra-Garazi, Udalbiltza, presoak... gai politikoen inguruko adostasun batzuetara iristea; baina, udalaren kudeaketan sartu gabe.

■ **Zein izan zen zuen erantzuna?**

Guk arazo politikoa, Hernanin behintzat, baretu eta aurrera egiteko normalizazio plan orokorra proposatu genuen: alderdi guztiak, presoak, biktimak... denak bilduko zituen foroa edo zerbait sortzea. EHk ez zuen onartu nahi izan. Normalizazioaren

puntu horretan adostasunik ez, eta programan eragiteko aukerarik ez izatekotan, zertarako sartu udal gobernuan?

Iñaki Arratibel

“Indarkeri kontuak isildu egiten dira. Herrian bati taberna erre eta hemen ez da ezer gertatzen.”

■ **Zein dira zuen oposizio lanaren ardatzak?**

Beno, oraindik gobernu programa ez dugu jaso...

■ **...udalak ez al du, ba, programarik?**

Izan izango du, baina, guri ez zaigu iritsi. Gainera inprobi-

satzen ari direla ematen du: hasieran liberatu eta erdi nahikoa omen zuten, orain beste bat eta erdi hartua dute...

Guk *arau subsidiarioei* buruzko eztabaida (herria nola planifikatu: fabrikak, etxeak... non, zenbat, nola...) zabaltzea eta herritarrek parte hartzea nahi dugu. Aurreko legegintzaldian zirriborro bat egin genuen; orain kajoian sartua daukate.

Hezkuntzan, oraindik, ez dakite Paradorearekin zer egin. Kulturean, Urtekaria inongo justifikaziorik gabe kendu egin dute...

■ **‘Oposizioak’ Kronika irakurtzen al du?**

Bai, gure etxera behintzat egunero iristen da. Zer irudipen? Beno, oraindik hasi berria dela, ezta? □

EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAK

Ikasleek matrikula gastuen erdia jasotzeko aukera izango dute

Udal Euskaltegian, AEKn edo herritik kanpoko euskaltegietan ari direnek aukera bera izango dute.

Orain artean, euskara ikaste-ko diru laguntzak nahi zituenak ez zuen Udal Euskaltegian izena eman beste aukerarik. AEKn edo herritik kanpoko euskaltegiren batean ikasi nahi zuenak dena bere patrikatik ordaintzera!.

Orain, berriz, AEK-k udalarekin sinatu duen hitzarmena tarteko, euskaltegira huts egin gabe joaten dena behintzak, patrikari malkoren bat kentzeko moduan da. Eta langabetua bada, bi ere igoal bai. Eskatu lasai, libre omen da-eta.

\$ DIRU LAGUNTZAK \$

Zenbat?

☐ Matrikularen % 50renaino, langilea bada.

☐ Matrikularen % 75renaino, langabetua bada.

Baldintzak?

☐ Gutxienez, % 85eko asistentzia.

Epeak?

☐ Aurtengorako, uztailaren 28a baino lehen. (Herritik kanpora ikasten dutenentzat).

☐ Datorren urterako, irailean.

Laguntza bereziak?

☐ Barnetegiak, ikastaro trinkoak...

■ PRESOK

Gaur ‘3/4’ plataformak deituta kontzentrazioa Plaza Berrin

Kartzela zigorraren hiru-laurdenak bete dituzten presoek askatasuna eskatuko da gaurko kontzentrazioan.

Xabier Arnaiz, *Kinito* eta *Beltza*, hiru dira Hernanin hiru-laurdenak beteta. Zazpitan da zita. □

 **Gráficas
Hernani**
Portu auzoa 6
Tel. eta Faxe 943 551 087
20120 HERNANI

 **HAIDA
TABERNA**
Kardaberaz 5
HERNANI

■ ERREMONTA

Larunbatean hasiko da buruz-
buruko “Bingo Londres” tornea

Galarretan izango dira partiduak larunbatean hasi eta irailera arte. Hamabi pelo-
tari lehiatuko dira eta onenak Ezkurraren aurka jokatu-
ko du finala.



Larunbatetik aurrera ez dira hain patsadatsu egongo!

ASTEARTEAN aurkeztu zen Donostian, “Bingo Londres” buruz- buruko erremonte tor-
nea. Aurtengoan seigarren edizioa da.

HAMAHIRU PELOTARI
Pelotariak A eta B multzoetan banatu dituzte. Multzo bakoitz-
ean iazko postuaren arabera kokatuak daude eskaileran, eta torneoa aurrera egin ahala eskaileran gora joango dira.

Finalaurrekoan A eta B multzoetako garaileek jokatu-
ko dute, eta irabazleak jokatuko du finala Ezkurraren aurka.

EZKURRA FAVORITO
Iazko garaileak ondo erakutsia du bere maila. Aurten ere txapela nahi duenak gorriak ikusi beharko ditu ‘Koteto’ Ezkurraren aurrean. Hauta-
gaien artean Eizagirre, Lizaso

eta Zeberio II ageri dira.

HASI LARUNBATEAN
Larunbatean Matxin eta Lekunberriren arteko partiduak emango dio hasiera aurtengoari. Ondoren, ostegun eta larunbatero izango dira partiduak; *gaur* B eta *hurruna* A taldekoak.
Udaran, beraz, ez dute erremonte zaleek aspertzeko aitzakiarik. □

		S	
B TALDEA	Matxin Lekunberri	Iriarte -	Urretabizkaia I -
	uztailak 22	uztailak 29	abuztuak 5
			Altuna I -
			abuztuak 12
			Lizaso -
			abuztuak 19
			Eizagirre -
			abuztuak 24
			Aizpuru -
			abuztuak 17
		Zeberio II -	
		abuztuak 10	
A TALDEA	Elizalde Etxabe	Altuna II -	
	uztailak 27	abuztuak 3	
FINALAURREKOA A eta B ko garaileek		FINALA Ezkurra - ?	
abuztuak 26		irailak 2	

■ HITZ BITAN



Hernaniko
ahotsa uhin
berri bila.

✓ MOLOTOFF IRRATIA (FM 99.2)

Molotoff-ek irratia-
ren norabidea zehazteko iritzi bilketa
egingo gu gaur 20.00etan Gaztegunean. Gaiaren garrantzia kontuan izanda interesatuak azaltzeko deia egiten du irratiak (Kronikan noski).

✓ TXOZNA BATZORDEA

Txozna batzordeak bilera du gaur San Joanetako balo-
razioa egiteko. Jakina da urtebete baino gutxiago geratzen dela; hurrengo urtekoetarako ere izango da zer hitzegina. Bilera 19:00etan Gaztegunean.

✓ HAIKA

Amaiur prozesuaren barruan Euskal Herriaren egoerari buruzko eztabaida izango da gaur Gaztegunean 16:00. Haikak euskal gazte sozialista eta independentista guztiei dei egiten die eztabaida hauetan parte har dezaten.

✓ FERIA

Astero bezala, feria izango da gaur ere Hernanin. Landare eta hegaztiak Atzietan eta gainerakoak Urbietan. Patrikak ondo bete eta azaldu! □

☎ TELEFONOAK	✚ FARMAZIAK
► Taxiak: 550093	► Egunez: Correa (Antziola, 44. ☎ 551933)
► Udaltzaingoa: 333288	
► DYA: 464622 335533	► Gaez: Correa (Antziola, 44. ☎ 551933)
► Anbulategia: 557750	

HERIOTZAK

Jose Luis Pariente Alonso jauna.

Herenegun hil zen 35 urte zituela.

Zure publizitatea
hemen

HERNANIK
kronika
☎ 943 330899